

2011ko Udal Aurrekontuei buruzko irakurketa



1.-Aurrekontuen osotasunari ezetza

2.- Hainbat ardatzetan artikulatutako kritika

- A. Diru sarrera sistemaren gaineko kritika
- B. Kudeaketa ereduaren gaineko kritika
 - Udal sailak
 - Udal enpresak
- C. Eskubide demokratikoak bermatzen ez dituen Udal Gobernuak
- D. Hiritarrek parte-hartzeko duten eskubidea baztertzen duen Udal kudeaketa iluna
- E. Lan prekarioa bultzatzen duen udal administrazioa
 - Azpi-kontratazioak
 - Enplegu sustapenerako politikak
 - Izendapen askeko karguak
- F. Lurraldea eta espazio publikoa negozio pribaturako leku bilakatzen duen hirigintza eredu jasangaitza
 - Etxebizitzarako eskubidea ez dago bermatuta
 - Zaharberritzerako bultzada falta
 - Eremu berdeen falta hirian
 - Bestelako ingurugiroko kontuak
- G. Auzoak inongo lehentasunik gabe egungo gobernuarentzat
- H. Mugikortasun Jasanezin baten ereduak
 - Lehentasuna ibilgailu pribatuentzat
 - Garraio garbiaren aldeko apusturik gabe: txirrindula
- I. Kontsumorako kultura, hiritar eskubidea den sorkuntza kulturaletik urrun



J. Euskararekiko konpromiso nulua

K. Emakumeak baztertzen dituen aurrekontua

- Zaintzen krisiarekiko inongo harretarik
- Emakumeen lan eskubideen urraketa
- Emakumeen bizitza eskubideari lehentasun falta
- Murrizketak aurrekontuetan

L. Krisi ekonomikoa sufritzen dugunon kohesio sozial eza bultzatzen duen aurrekontua

M. Eliteentzako kirol kudeaketa-eredua

3.- Ondorioa



1.-Aurrekontuen osotasunari ezetza

Aurrekontua udal politikarako tresna nagusia da eta udal horren kudeaketa ereduaren isla. Bilboko Udalak plazaratu dituen 2011. urterako aurrekontuek, azken urteetan egindakoaren jarraipen hutsa direnak, orain arteko hiri eredu bera jarraitzen dela adierazten dute:

Bilbo kontsumo objektu eta kontsumorako gune bezala.

Arrotza ez zaigun egungo ekonomia, ingurugiro eta zaintza krisi eskenatoki honetan, eraikuntza eta turismoaren alde egiten duen eredu desarrollista nagusiki bultzatzen duen aurrekontu batekin egin dugu topo. Horretarako neurrigabeko gastua egiten du makro-proiektuetan: San Mames Barria, Alondegia, Abandoibarra, ekitaldi handiak, ... Honela, udal agendatik at gelditzen dira hiritarron ehuntze eta eraikuntza soziala eta ez dira aintzat hartzen auzoen benetako beharrak, zeinetan hiritarron gehiengoa bizi garen.

Azkunaren gobernu taldeak sinestarazi nahi digun ideia da, atzerrian hainbestetan saritutako eta ekialde urrunean aurkeztutako erakusleihu hiri honek motore ekonomiko bihurtu eta gure ekonomia kolpatua konponduko duela. Alta, eguneroko bizitzarekin erlazionatutako elementuetan inbertsioa egitea da gure ustez motor ekonomikoaren aldeko ekarpenik onena, baina agerikoa da bestelakoa nahi duela udal honek. **PNVk eta IUk bultzatzen duten turista eta kongresistentzako Bilboren aurrean, bertan bizi garen pertsonentzako hiria eraikitzeke apustu argia egiten dugu.**

Beharrezkoa deritzogu azpiegiturak inbertsio bezala eta pertsonentzako aurrekontu partidak gastu bezala ikusteari uztea. Hezkuntzan, kulturean, kirolean, enplegu kalitatean, pertsona ororentzako aukera eta trataera berdintasunean, gazterian, parte hartzean, ... inbertitzeak positiboki eragiten du hirian, pertsonok inbertsioan partaide sentiaraziz.

Bestalde, **hiritarron parte hartze nuluarekin eginiko aurrekontu**



batekin topatzen gara berriro. Azken 30 urteotan, ez da ia ezer aurreratu aurrekontuak (zer esanik ez berauen kudeaketa) hiritarrei irekitako zerbaitetan bihurtzeko. Bilboko esperientziak, jarduera zerrenda batetik lehentasunen egutegia erabakitzean oinarritzen dira soilik, askotan aurrez erabakitako jarduerak, aurrekontu mugatukoak eta arrez esleituak. Honi nekez deitu dakioke partaidetza. Gainera, espazio zehatz batzuetara (distritua) erakunde zehatz batzuekin (distritu kontseilu horretan parte hartzen duten erakundeak) mugatua dago, zeinak ez diren zertan auzoa osatzen duten sareen parte izan behar.

Udala lehenesten duen ekonomia eredu desarrollista honek eta udal kudeaketan hiritarrek dugun parte hartze nuluak, hurrengo ezaugarriak –Bilbon bizi garenok jada ezagutzen ditugunak– dituen aurrekontura garamatza :

- **Auzoen ahanztura:** Bilboko erdiguneko gastu puztuan jarraituz, aurtengoan Alondegiko makro-proiektuak izan duen neurrigabeko gastuan agerian gelditu denez.
- **Aurrekontu antisozialak:** esklusioaren aurkako borrokan inbertitzea lehenetsi gabe, ez eta hiritargoan positiboki eragin dezaketen inbertsio guztietan lehentasunik inondik inora jarri gabe.

Euskal Herria eta mundu ezberdin baten baitan Bilbo ezberdin baten irrikan eta konbentzimenduan, hau da Bilboko aurrekontu orokorren gainean dugun ikuspuntua eta bere gaitzespenaren argumentazio nagusia.



2- Hainbat ardatzetan artikulatutako kritika

Aurretik egindako kritika orokorraz haratago, beharrezkoa ikusten dugu Azkunaren gobernuak aurkeztutako aurrekontuen gaineko begirada zehatz bat egitea, Bilboko oraina eta etorkizunari begira berebizikoak diren ardatzetan.

A.- Diru sarrera sistemaren gaineko kritika

Aurrekontuen inguruko balorazioa egiterako orduan, kostuen eta beraien banaketaren inguruko azterketa egitea da ohikoena. Baina era berean, beharrezkoa da diru sarrerak aintzat hartzea, batez ere gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoak hauek era adierazgarri batean murriztu dituenean.

Murrizketa honen arrazoietakoa bat, gehien dutenei zergak jaisten zaizkiela da (enpresariak, bankuak, errenta altuak, ...), besteoi (langileak, hiritarrak..) igotzen zaizkigun bitartean. Zerga zuzenak jaisten dira (erosteko gaitasuna edo pertsona fisiko eta juridikoen errenta gaitasunarekin, PFEZ, sozietateak eta ondareak, estuki lotuta daudenak) eta zeharkakoak areagotzen dira (guztioi neurri berean ezartzen zaizkigunak, pertsona fisiko zein juridikoen gaitasun ekonomikoari erreparatu gabe, BEZ eta zerga bereziak: erregai, alkohol, tabako, etab.). Honen arduradun zuzenak Batzar Nagusiak (PNV-PSE-PP) eta Gobernu zentrala (PSOE) dira. Udalaren sarrerren hornitzaile nagusi diren Udalkutxaren eta Gizartekutxaren zenbatekoan eragin zuzena dute, hauek era zabal batean murriztuak gelditzen direlarik.

Diru-sarrerren kudeaketan ez da udala zeresan handiena duena. Zapateroren Gobernu bezalako administrazio publikoek aldiz, foru diputazioen laguntzarekin, BEZaren %2ko igoerarekin gero eta zabalagoak diren sektore sozial erdeinatuen ekonomiak are eta gehiago kaltetu dituzte. Bestalde, momentuko diru sarrera hau, berriz ere ez da gehiengo sozialaren mesedetan itzultzen, baizik eta krisi hau eragin



dutenen mozkinetan, onura fiskalei esker eta iruzur fiskalaren bidez, gure egunerokotasuneko esplotaziotik etekina ateratzen duten berberei, alegia.

Bere aldetik, Jose Luis Bilbaoren Bizkaiko Foru aldundiko PNVko gobernuak ondarearen gaineko zerga kendu du, PFEZa aspaldi jaitzi zien diru gehien dutenei eta baita sozietateen inguruko zerga enpresariei. Eta bitartean, ez du ia ezer egiten Hego Euskal Herrian 12.000 milioi eurotan estimatzen den iruzur fiskala jazartzeko.

Kudeaketa ereduaren gaineko kritika

Udal sailak

Udalaren kudeaketa-egituraren izaera estankoak eragin zuzena du udal aurrekontuetan. Aurrekontuen inguruko negoziazioa ez da gobernu osatzen duten bi taldeen artean ematen soilik - PNV eta EB -. Alderdi berak kudeatzen dituen sailen artean ere ematen dira. Hiri ikusmira galtzen dute dagokien txokoa negoziatzeko, argazkiari ahalik eta etekin handiena ateratzeko xedearekin, epe luzerako inongo plangintzarik gabe eta argazkiaren kostuak herritarrei eragin ahal dien eskubide murrizketei erreparatu gabe.

Hala ere, aurrekontu honetan arreta deitzen duena da sail organikoaren artean **Alkatetza dela aurrekontuaren zatirik handiena** bereganatzen duela, guztiaren gaineko **%18 bereganatzen** duen makro departamentu bat eratzen delarik, bere beharrak auto-sortuz.

Udal enpresak

Guztira **14 udal enpresa** daude Udal Organismo Autonomo, Udal Sozietate Publiko eta Tokiko Enpresa-Entitate Publikoen artean. Enpresa hauek udal kontuak eta pertsonalaren kontratazio sistemak are eta eskurazainago egiten dituzte. Gainera, **erabat aurka gaude enpreson sorrera "kudeaketa hobetzeko" dela baieztatzearekin, publikoak gaizki funtzionatzen duela ulertaraziz.**

Gobernuaren negoziazioen arabera hornitzen dira enpresa hauek

aurrekontuz eta edukiz eta batzuetan ez da ulertzen zein irizpideri erantzuten dioten. Aurten, **egoera ikaragarri bat gelditu da agerian Bilbao Zerbitzuak-Servicios enpresa berak hilerri eta udal merkatuen kudeaketa eramaten baitu.**

C.- Eskubide demokratikoak bermatzen ez dituen Udal Gobernuak

Kontrolaren hirian bilakatu da Bilbo azken urteotan. Kontrol honen bidez edozein motako ekintza, dinamika, kultur manifestazio eta iritzi ezberdin edota kritika kaletik atera, isilarazi edo desagerrarazi nahi dira. UL Eren erabilera alderdikoia, azken urteotan zentsura politikorako zerbitzu bilakatu dena, neurritz kanpoko isunak edota hiriko zenbait zonaldeetan ezarritako bideo-zaintza kamerak, San Frantzisko auzokoak kasu, esandakoaren adibideak dira.

Ahaztu barik, biltzeko eta antolatzeko eskubidearen murrizketa, lokal autogestionatuen itxiera, distrituetan biltzeko eta distrituko zentroak eta udal eskolak erabiltzeko trabak, jaiak, kontzertuak eta kultur ekintzak antolatzeko debekuak eta auzoetako jaien (auzoetan ematen diren ekintza kultural bakarrak praktikan) antolakuntza egokirako gero eta traba handiagoak, gau ordutegietan murrizketa, fidantzen galerak, ...

Guzti hau lortzeko udalak ez dauka udaltzaingoa gehiegikeriaz erabiltzeko arazorik, hauek izaera errepresiboagoa duten bestelako poliziekin batzuetan parekatuz. Kontrola gero eta handiagoa da Alde Zaharrean eta San Francisco auzoetan eta edozein aitzakiarekin, poliziaz beteak dira gau eta egun.

Hau gutxi balitz, aurten politika honen areagotze bat bizi izan dugu hain eztabaidatua izan den Espazio Publikoen ordenantzarekin. Berau, oinarritzko eskubideen urratzaile eta jarrera ez delituzkoak estigmatizatu eta zigortzen dituen, atal honen sarreran aipatu helburua betetzeko sortua izan da.

Gaur Bilbon segurtasunaren inguruan hitz egitea kontrolaz hitz



egitea da, hiri polizialaz, "seguritateaz", bideo zaintzaz, isunez, eta azken finean, pertsona arriskutsu bezala kontsideratutako haien segregazioaz, orokorrean pertsona migratzaileak; **segurtasunaz hitz egitea bazterketaz hitz egitea da.**

Neurri horiek guztiak eskubide demokratikoen ikuspuntutik kritikagarriak izatez gain, bere isla propioa daukate udal aurrekontuetan, diru publikoaren kudeaketan. Hiritarren segurtasun sailaren aurrekontua neurrigabe hazi da, **6 urtetan** 49 milioiko aurrekontu batetik 70 milioiko aurrekontu batera pasatuz. Hau da, **%42aren gorakada** segurtasunari mesede gutxi egiten dieten neurri horiei guztiei zuzenduta.

Udal aurrekontua: segurtasuna

2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
48.921.600	55.598.689	60.060.548	65.542.847	70.419.591	71.187.374	70.232.195*

* Beherakada hau Zapateroren dekretazoaren osteko soldata mozketei dagokio.

Hiria gero eta itogarria da neuri errepresibo hauekin eta zenbait hirigintza jarduketarekin. Alternatiba gisa, guk akzio plan integrala **aldarrikatzen dugu**, gai honetan zer esana duten udaleko sail guztien partaidetzarekin, auzoetako elkarbizitza hobetzeko, proposamen, bitarteko eta baliabideekin (pertsonalak eta ekonomikoak).

D.- Hiritarrek parte-hartzeko duten eskubidea baztertzen duen udal kudeaketa iluna.

Hiritarren partaidetzarako saila aurrekontutik diru gutxien jasotzen duena izaten jarraitzen du eta aurreko urtearekin alderatuta **%12a gutxitu** da. Honez gain, ulertezina da, sail beraren zatiketa hiritarren harreman eta partaidetzako azpisailetan. Aurrekontu xehakatuak auzo elkarten **ikuspegi klientelista** agerian uzten du; diru laguntzak jaso eta zerbitzu batzuk eskaintzen zaizkie eta hor bukatzen da hiritarren partaidetzari buruz udalak hurrengo urterako



duen ikuspegia.

Hiritarren partaidetzari buruz udaleko gobernua duen ikuspegi motza edo nulua 2011. urtean burutuko duen ekintzarik adierazgarrienean ikusten da, Errekalde barrutiko zentro berrian. **Azpiegitura** beharrezkoa bada ere, **ez dugu uste honek bakarrik hiritar aktibota eta kritikoak bultzatuko dituenik**. Bere bitarteko propioak nola kudeatu behar diren erabakitzeko eskubidearen jabe, hiritargo aktibo eta kritikoa oinarrizkoa dela deritzogu udal politikak kudeaketa garden eta eraginkorra izan dezan.

Baldintza hauen pean, zaila ikusten dugu aurrekontu parte-hartzaileen gaineko esperientziak izatea. Hau dela eta, eremu honetan formazio parte-hartzailea izateko aukera lehentasunezkoa dela uste dugu eta aurtengo aurrekontuetan, honek beharko lukeen aurrekontu zatia bereganatzea proposatzen dugu. Formazio hau Bilboko eragile sozial guztiei zabalduko litzaieke eta horrela behingoz, 2012. urteari begira, eremu honetako esperientzien inguruan hitz egin ahal izango genuke.

Gure ustez hiritarren parte hartzerako zeharkako partida bat egon behar da eta alkatetzaren menpe egon.

E.- Lan prekarioa bultzatzen duen udal administrazioa

Udal honek bultzatzen duen eredu ekonomikoa sistemaren egungo krisia eragin duen berbera da, bilbotarron gehiengoak babesten ez dugun eredu hain zuzen ere.

Krisi honen oinarrizko ondorioak langabeziaren gorakada nabarmena (23.751 langabe Bilbon 2010eko urriaren amaieran 2007ko urtarrilean zeuden 14.674en aurrean) eta lan eskubideen mozketak basatia izan dira. Sinestarazi nahi digute eskubide mozketak hau enplegu tasen gorakadaren mesedetan egin behar dela eta logika honetan kokatu da udala ere, 2011. urteko aurrekontuetako hainbat alorretan ikus daitekeen bezala:

Azpi-kontratazioak

Udalaren **azpi-kontratazio politikak egonkortzen joan dira** urtetik urtera, 2011. urtean zerga bilketarako bulegoa ere azpi-kontratatu dute!

Udal aurrekontua: Beste enpresek egindako lanak

2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
91.970.847	97.406.689	104.841.019	105.074.650	123.470.162	133.364.193	128.498.552*

*Beherakada kultura eta gizarte arloko kontratuen ezabaketari dagokio, baita Alondegiren obren bukaerari ere.

Zerbitzuak azpi-kontratatzeko diru publiko gehien bideratzen duten sailak obra eta zerbitzu saila eta gizarte ekintzakoa dira. Bi kasutan, enplegu duinaren inongo bermerik gabe, enpresa pribatuek arlo horietako diru publikoaren %50etik gora kudeatuko dute.

Enpresa pribatuak administrazio publikoak baino eraginkortasun handiagoz zerbitzuak eskaintzen dituela frogatzeko ez dute argudiorik sekula eman ez PNVko ez IUko kudeatzaile politikorik. Hau azpimarragarria da.

Kasurik deigarriena garbiketa, desinfekzio eta zabor bilketaz arduratzen den sailaren aurrekontuaren gorakada da, 49.703.922 eurotik 50.361.668 eurora igotzen dena. FCC eta bereziki bere administrazio kontseiluko partaideak diren Esther Koplowitz, Marcelino Oreja, Nicolas Redondo Terreros eta Fernando Falcók, besteak beste, izango dituzte posibleak, eta ez enpresako langileak.

Udal zerbitzuen azpi-kontratazioaren eraginez lan prekarioa sortzen denaren beste adibide argi bat Veolia da, Bilborako oinarritzakoa den garraio publikoaren zerbitzuaren kudeatzen duena: **Bilbobus**

Egun enpresa honetako langileak greba mugagabeen daude beraien lan egoera prekarioarengatik: enpresak ez du autobusen mantentzea egiten eta ez dizkie langileei ordaindu nahi aurretik egindako ordu estrak, beste kontu batzuen artean.

Honen aurrean udalaren erantzuna Veolia enpresari beste zortzi



autobus erostea izan da. Horrela, enpresak bere autobusen mantentze ardurari izkin egiten jarraituko dio. Gainera, oraingoan, alkateak enpresaren aldeko jarrera adierazi du, langileak pribilegiadun eta arduragabetzat joz, beraien soldata diru publikoa dela esanez eta bere burua eredutzat hartuz, krisi garai hauetan, 96.399,73 euro irabazten baditu ere.

Egoera hau izanik, bultzada ekonomikoa lan baldintza duin eta kalitatezkoetatik hasten dela iruditzen zaigu eta horregatik udal zerbitzu guztien bir-publifikazioa proposatzen dugu, hauen kalitatea zerbitzuak eta enplegua bermatzen dituen kudeaketa zuzenari lotuta dagoela sinesten dugularik.

Enplegu sustapenerako politikak

Udalak, hala ez egokitu arren, bere egiten dituen konpetentziei ahalik eta errentagarritasun handiena atera behar die, hala nola, enplegu politika aktiboei dagokionez, beste instituzioek beste alde batera begiratzen dutenean (Diputazioa eta Eusko Jurlaritzza).

Alta, ez dirudi Udalak enpleguari bultzada eraginkor bat eman nahi dionik, **Lan Ekintzari aurrekontutik milioi bat euro jaitsi diola ikusita**. Diru galera hau Bilbao Kirolak-ek izan duen gorakadarekin bat dator eta zinegotzi beraren kudeaketapean izanik, jokaldia alderdi interesengatik bakarrik uler daiteke; etekin mediatikoa nahiago hiritarron bizitza hobetzea baino.

Gure ustez, momentu honetan, gastua lehentasunez enplegua sustatzeko entitate kudeatzaileari bideratua egon behar da.

Izendapen askeko karguak

Baina garai latz hauek ez dirudi mundu guztiari berdin eragingo diotenik. Bilboko udalak 6 pertsona gehiago izango ditu izendapen askeko karguetan, orain arteko 79tik 85era pasatuz. Kargu hauetaz ari garenean inongo aukeraketarik gabeko postuei buruz ari gara.

Bitartean, bete gabeko postuen zenbatekoa 198tik 130era pasako da



2011. urtean. Honek esan nahi du lan postuen zerrendari dagokionez ez dagoela langile beherakadarik baina errealitatean lanean dauden pertsonak gutxiago direla, 2215etik 2142rako jaitsiera hain zuzen ere. Egin gabe dituzten EPEak egin bitartean, kalitatezko lana suntsitu dute.

F.- Lurraldea eta espazio publikoa negozio pribaturako leku bilakatzen duen hirigintza eredu jasangaitza

Berriro ere aipatzea, Bilboko Udalaren eredu ekonomiko desarrollista honek bere birsorkuntzan hirigintza sektoreak lehenetsi dituela. Honen eraginez, hirigintzaren lehentasuna gure hirian ez da egon hiritargoaren oinarrizko eskubide aitortuen eta beharren baitan: etxebizitza, hezkuntza eta osasun publikorako eskubidea bermatzeko ekipamenduentzat lurren erreserba, eremu publikotik mendekotasunari arretea egitea, eremu berdeak,...

Hiriaren planteamendu honek duen hiritarren eskubideenganako begirune faltak bere isla du Bilbon eskola publikoaren aldeko apustu nuluan. Hezkuntza zentroen erreformak egiteko kantitateen estimazioak ez dira nahikoah eskari erreala estaltzeko. Horregatik kantitate hori heren batean igotzea proposatzen dugu.

Eredu hau 2011. urteko aurrekontuetan mantentzen da eta urterik urtera erakusten dituen gabezietan xehatu daiteke:

Etxebizitzarako eskubidea ez dago bermatuta

Etxebizitzen eraikuntzarako garabiek gure kaleetan jarraitzen dute. **Etxebizitza berrien gehiengoa eremu pribatukoak dira eta zonalde pribilegiatuetan daude.** Hau da, oraindik ere neurritz kanpoko prezioa duten etxebizitza asko eraikitzen dira, etxebizitzaren arazoari irtenbiderik ematen ez diotenak eta **lurraldea negozio eremu bilakatzen dutenak.** Honek, etxebizitzaren arazoarekin zer ikusia izateaz gain, jasangarritasunaren arazoarekin ere badu zer ikusia, izan ere, neurritz kanpoko eta inongo datuetan oinarritutako etxebizitzen eraikuntza ingurugiroarekiko degradatzailea da argi eta



garbi eta ez du hirigintza jasangarri bat ziurtatzen.

Bilbon etxebizitza bat behar duten pertsona kopurua (Etxebiden 15.353 pertsonak dute izena emanda) hutsik dauden etxebizitzaren kopuruaren parekoa da. Hau horrela izanda ere, etxebizitza gehiago eraikitzen jarraitzen da. Lurralde-Plan Partzialak 2016. urterako Bilbon 30.000 etxebizitza berri eraikiko direla aurreikusten du, populazioari dagokionez 16.000 pertsona gutxiago biziko direla uste bada ere.

Zaharberritzerako bultzada falta

Aurretik aipatutakoaren arabera, logikoena eta ingurugiroarekiko jasangarriena zaharberritzea bultzatzea litzateke, batez ere, beraien izaera zaharrarengatik, inbertsio handiagoa behar duten hiriaren zati horietan. Beraz ulertezina da Surbisa bezalako erakunde baten aurrekontuetan inongo gorakadarik ez egotea, batez ere bere eragin eremua handitu denean, Artazu-Behekoa eta Deustuko Erriberararte.

Eremu berdeen falta hirian

Espekulaziorako hiri eredu honek ere, legez ezarritako eremu berdeak Bilboren kanpoaldera eramatea ekarri du, eguneroko gozamenaren kalterako.

Eskandaluzkoa da gainera errepidetako medianetan ezarritako landareak berdeguneko inbertsio bezala zenbatzea.

Bestelako ingurugiro kontuak

Bilbok Aldaketa Klimatikorako bulego bat eta Aldaketa Klimatikoaren aurkako borroka plan bat ditu (web orrian ez dagoena eta zeinaren edukirik ezagutzen ez dugun) baina Aldaketa Klimatikoaren kontrako ordenantza bat onartzeko zain dago. Onarpen hau eta honen ostean espero diren ekintzei dagozkien diru partidak ez dira existitzen 2011. urtean.

G.- Auzoak inongo lehentasunik gabe egungo gobernuarentzat

Oso garrantzitsua da 2011. urteko udal aurrekontuan eman den beherakada:

2007	2008	2009	2010	2011
45.307.002	44.089.402	27.869.146	24.645.699	23.883.508

Auzoen arteko orekak ez du esan nahi auzo guztiei diru kopuru bera eman behar zaienik, auzo guztiek ez baitaukate hasierako egoera berdina. Honez gain auzo batzuek jasotzen duten gain inbertsioa nabarmena da, Alondegiko adibidea kasu.

H.- Mugikortasun Jasanezin baten eredua:

Bilboko udalean ez dago egun, garraio publikoaren benetako egituratze baten aldeko borondate politikoa, eta honek hiritarrek garraio eta mugikortasun arloetan baliabide eraginkorrak ez izatea ekarri du. Hau arlo eta zerbitzuen koordinazio faltaren eta lehentasun ezberdinen ondorio ere bada.

Mugikortasun eredu hau 2011ko aurrekontuetan agertzen da, eta honako ezaugarri nagusiak ditu:

Helezina

Bilbon, **irisgarritasun eskasa duten gunek daude oraindik**, eta gainera Udalak oraindik ez du horientzat aurrekonturik ezarri. Zenbait adibide hauek izan daitezke:

- *Arangoiti eta bere igogailuaren gatazka bukaezina,*
- *Enkarnazio eta Goiko Ollerrias kaleetako eskailerak Atxurin.*

Lehentasuna ibilgailu pribatuentzat

Ez da onargarria Udalak **ibilgailu pribatuentzako aparkalekuen eraikuntzarako eta trafikoaren kudeaketarako aurrekontu**



partidak "oinezkoa mugikortasunaren erdigunean ezartzeko" direla esanez saltzea.

Garraio garbiaren aldeko apusturik gabe: txirrindula

2011ko aurrekontuak **50.000** euro ezarri ditu **bidegorri** sarea eratzeko. Kopuru hau txikiegia da eta ez dio udaleko tiradera batetan ezkutatuta egongo den **bidegorri planari garaipena** ematen. Honek, txirrindularen erabilera gaitzesten duen Kale Ordenantzari onartu berriari gehituta, gure hirian bizikletaz ibiltzea oso arriskutsua izatea eragiten du, bai gure segurtasunagatik, bai eta sortzen diren isun ekonomikoengatik ere, nahiz eta agerikoa den garraio hau gero eta pertsona kopuru handiagoak erabiltzea erabaki duela.

Kalitatezko garraio publikoa babestu gabe

Lehen aipatutako langile eta Veoliaren arteko Bilbobuseko lan gatazkak, Bilboko alkateak langileen aurka eginiko deklarazioekin batera, oso argi uzten dute udal gobernu honek oinarritzkoa den garraio publiko zerbitzuarekiko zer nolako jarrera duen.

I.- Kontsumorako kultura, hiritar eskubidea den sorkuntza kulturaletik urrun.

2011ko aurrekontuan agertzen den kultura arloari ezarritako ardatz estrategikoaren izenak berak: "**BilboZ** gozatu", hiria kontsumorako objektu bihurtu nahi dutela agerian uzten du. Ardatz honek ere kultura hiritarrek pasiboki jaso behar duten zer edo zer dela adierazten du. Gure ustez, ardatzak **BilboN** disfrutatu eta, batez ere, sortu ahal izatearen ideia bildu beharko luke.

Aurreko ideia horretan oinarrituta, **Alondegia** bezalako makro-proiektuei emandako diru kopuru handiak dauzkagu. Kasu honetan **150 miloi euro baino gehiago** eman zaizkio, eta beste kasuetan udal teknikarien bulegoetatik sortutako programazioak agertzen zaizkigu. Azken hauek hiritargoa ikusle pasibo legez hartzen dute eta oro har, gehienak, hiriaren erdigunean burutzen dira:



Honen adibide bat, **Bilbao 700 Fundazioa da. 2 miloi euro** jasotzen dituen erakunde honek, ekintza puntualak antolatzen ditu hirian Bilboko Fundazioaren urteurrena ospatzeko. Honen aurrean **auzoetan** burutzen den kultura programazio iraunkorrek **400.000 euro** jasotzen ditu bakarrik, hau da, fundazio horrek jasotzen duenaren laurdena gutxi gora-behera.

Auzoetako kulturarako udal aurrekontua

2007	2008	2009	2010	2011
1.390.000	890.000	440.000	400.000	400.000

Bilboko 39 auzoetako jaietarako 27.807 euroko kopuru iraingarria esleitzen dute, sumisio balore zaharkituak bultzatzen dituzten Aste Santuko ekintza erlijiosoei ematen zaiena baina dezente gutxiago.

J.- Euskararekiko konpromiso nulua

Bilboko udalak ez du inoiz euskarekiko inolako konpromisorik izan. **Ez dago Bilbo euskalduna lortzeko inolako planifikaziorik**, diru-laguntza urri batzuk soilik eskaintzen ditu, baina inolako garapen planifikaturik gabe.

Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak, herri ekimenen esku daude gero eta gehiago, eta horrekin batera, udalak ematen dituen diru-laguntzen kopurua gero eta txikiagoa da.

Udal aurrekontua: euskara

2010	aurrekontuaren %	2011	aurrekontuaren %
2.594.990	0,51%	2.484.375	0,49%

Pertsonalaren eta zerbitzuaren funtzionamenduaren gastuak kenduta, euskararen normalizaziorako soilik 956.800 € geratuko dira, udal



aurrekontuaren %0,19. Gainera, datorren urterako 110.615 euroko jaitsiera emango da eremu honetan.

Eremu honetako partida orokorra, aurreko %12ko murrizketa batetik dator, zeinak, euskararen ezagupen eta erabilpenaren igoerarekin alderatuz, ez duen bat egiten Bilboko errealitate linguistikoarekin. Kasu honetan ere, Udala Bilboko errealitateari bizkarra ematen ari zaio.

K.- Emakumeak baztertzen dituen aurrekontua

2011. urteko aurrekontuek genero ikuspegia bermatua daukatela esaten du udalak. Baina aurrekontu honek emakumeen gehiengoan izango duen isla kaltegarria ikusirik, soilik pentsa dezakegu genero ikuspegiaren txertaketa hau espedientea betetzeko edukirik gabeko hitzak besterik ez direla, txostena zuzentasun politikoaz estaltzeko hitzak.

Gezur hau eta diskurtso feministaren manipulazioa eremu hauetan islatzen dira:

Zaintzen krisiarekiko inongo harretarik

Finantza eta ingurugiro krisiarekin batera dugun zaintzaren krisia, zaintza lanen ardura osoa emakumearen gain jartzen zuen ereduaren apurketatik dator.

Beraz, behar-beharrezkoa da zaintzen birbanaketa bat egitea, eta honetan erakundeek funtsezko protagonismoa dute. Hala ere, 2011ko aurrekontuek arlo honetan emakumeak albo batera utzi dituzte.

Oinarrizko kritika etxez etxeko laguntza zerbitzuaren (ELZ) tratamenduan koka dezakegu. Zerbitzuak 17 milioitik 15,9 milioitara jaitsiko du aurrekontua eta, ondorioz, langileek (gehienak emakumeak direnak) enpresa adjudikaziodunak lan-orduak nola murrizten dituzten ikusiko dute, gainera soldaten ez ordainketarekin mehatxatuz. Aldi berean, udalak eskaerak jaitsi direla esaten du, Mendekotasun Legeak zerbitzua mendekoak diren pertsonenei bakarrik eskaini behar zaiela ezartzen duelako.



Honako hau uste dugu:

- Zerbitzu hau, mendeko pertsonen zaintzan gizartearen erantzunkidetasuna bilatzen duten beste guztiek bezala, sexuaren araberako lan banaketarekin bukatzeko estrategikoa da. Lan banaketak, zeregin hauek emakumeen ardurapean ezartzen dituzenez, gure lan egoeraren ezegonkortasuna ekartzen du.
- Mendekotasun Legeak ezarritako balorazioaz gain, udalak bere irizpide propioak ezartzea eskatzen dugu, eta horrekin batera, laguntzaren beharra duten bilbotar orori kalitatezko zerbitzua emateko aurrekontuan baliabideak aurreikustea.

Zaintzen krisi honi eremu publikotik aurre egiteko beste arlo bat 0-2 hezkuntza tartea da, hots, Bilboko Haur-eskola zerbitzua. Honen inguruan oso nabaria da Bilboko haur-eskoletan dagoen toki kopuru eskasa, eta honek familia asko pribatuetara jotzera behartzen du, edo, hauen kostu handia ikusita, umeak guraso baten ardurapean gelditzera. Egoera hau beti da txarra emakumeentzat. Bere lanpostuan orokorrean egoera txarragoan daudenez, gehienetan eurak dira lana utzi edo lanordu kopurua gutxitzen dutenak. Plaza-kopurua gutxika handitzea ez dela nahikoa uste dugu. Bilboko udalak haur-eskolak egiteko 1.422.536 euro bideratuko ditu, ikuspuntu guztietatik kantitate urria. Alondegi makro-proiektuak aurten izan duen galera bera da.

Bukatzeko, 2010-2011 ikasturterako dauden plaza publikoek eskaeraren %5,37a baino ez dute betetzen (417 leku 7.300 umeentzat).

Emakumeen lan eskubideen urraketa

Azpikontraten sistemari egindako kritikaz eta, ondorioz, horrek dakarren enpleguaren ezegonkortasunaz gain, larriagoa da aurretiaz aipatutako ELZren kasua. Emakumeez osatuta dago sektore hau eta jada prekarizazioa handia bazen ere, euren lan eskubideak egun batetik bestera izugarri urratzen ari dira.



Emakumeen bizitza eskubideari lehentasun falta

Bilboko udaleko Berdintasun sailak premia biziko gaietan murrizketak jasan izan ditu, hala nola, indarkeria matxista pairatu duten emakumeentzako atentzio programa. Emakume hauentzat zeuden laguntzek %25eko murrizketa izan dute.

Murrizketak Aurrekontuetan

Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarrak Sailarentzako aurrekontua: 5,19 milioi euro, udal aurrekontuaren %1,04 da, soilik. Aurreko urtekoarekin alderatzen baldin badugu, hau %0,53 jaitsi da, aurrekontu osoa %0,25 bakarrik jaitsi den bitartean.

Emakumeari zuzendutako bi programei dagokionez, "Emakumeentzako gizarte laguntza" eta "Emakumeen Promozioa", bakarrik 1,75 milioi euro inbertituko dituzte (udal aurrekontuaren %0,35a), eta horri zinegotziaren eta sailaren langileriaren soldatak kentzen badizkiogu, gelditzen dena 875.590 da, aurrekontuaren %0,18 lotsagarria.

L. Krisi ekonomikoa sufritzen dugunon kohesio sozial eza bultzatzen duen aurrekontua.

Ekintza sozialaren sailean, krisi garai hauetan bazterketa sozialaren aurkako borroka lehentasunezkoa izan beharko litzatekeen arren, kontrakoa gertatzen da. Honako hau aipatu daiteke:

- Formazio eta txertatze politikei bideratutako dirua erdia baino gehiago gutxitu da, 1.392.162 eurotik 2010. urtean, 528.162 eurora pasatuz.
- Iruzur sozialaren aurkako borrokarako aurrekontuaren diru kopurua neurritz kanpoko delat uste dugu. Aurrekontuaren zati bat beraien burua laguntzak eskatzera bultzatuak ikusi duten pertsonengan susmoa eragitera zuzentzen da. Kontrol honek oihartzun mediatiko handia izan du eta iruzurraren eraginez diru laguntzarik ez dagoenaren ideia zabaltzen lagundu du, errealitateak dionean ez dagoela laguntza nahikorik pertsona



guztientzat sarrera nahikoak lehenesten ez direlako. Ezin da onartu gehien behar dutenenganako gorrotoa elikatzea. Eremuaren jarrera hau guztiz arduragabea da xenofobia bezalako fenomenoak hain erraz pizten diren garaiotan.

- Gure ustez egokiena aurreko kantitatea oinarrizko zerbitzu sozialetara bideratzea litzateke, batez ere, bertan lan egiten duten langile kopuruari dagokionez. Egun, oinarrizkoak diren eta Ekintza Sozialaren funtzionamendurako berebiziko garrantzia duten zerbitzu hauek, 1.337.800 euro jasotzen dituzte 2011rako, laguntzen kontrolerako aurreko programarako bideratutakoa baina askoz gutxiago.
- Bilbon bizi garenon arteko kohesio soziala sustatzea helburua duten baliabide publikoak kudeatzeko modurik onena kalitatezko oinarrizko zerbitzu sozialak izatea dela uste dugu. Horrela betetan, langile sozialen lana diru-laguntzen tramitatzailer hutsa izatetik haratago, kasu bakoitzaren arreta eta jarraipena pertsonalizatua izan ahalko da.
- Pertsona migratzaileak eskubiderik gabe uzten dituen aurrekontua. Iruzur sozial eta delinkuentziarekin lotzen dituen eta kultur artekotasuna bultzatzen duten ekintza kulturalen laguntzetan mozketak pairatzen dituen. Zentzu honetan, oso esanguratsuak zaizkigu Kooperaziari eta Emigrazio Politikei dagozkien zifrak. Hasteko, Kooperaziora bideratutako partidak ez dira heltzen jendarteak eskatzen duen %0,7ra (aurrekontu osoaren %0,59 dira). Immigrazio Programa %16,5 jaitsi dute eta hori itzultzen da bilerei bideratutako partidaren %36,84ko jaitsieran, %85 kontratu kultural eta sozialetan, publizitate eta propagandakoak (Udalaren irudia saltzekoak) %150 hazten direnean.

M. Eliteentzako Kirol Kudeaketa-eredua

Gobernu honentzat kirola ez da ongizate edo gizarterako tresna, gure

hirian aztarnarik utziko ez dituzten argazkirako ekitaldi handiak bilatzen direlarik.

Badakigu Bilboko kirol-instalazioak %100ean egoteko beharrezkoa den aurrekontua oraindik ez dugula. Eta bitartean, kirol instalaziorik ez dituzten auzoentzat, hala nola Otxarkoaga, Arangoiti, Altamira edota uriko goiko auzoak. Inbertsio guztiak azpiegitura handienetara bideratzen dituzte, horien artean erraketaren jauregia edo kirol klub bakarrarentzat kirol-jauregia daudelarik; bertara beste kirol klubak edo auzokideak ezin dira sartu, jauregia hutsik egon ezean edo ordaindu beharreko ikastaroen bidez ez bada.

Hurbileko herrietan adibidez, kirol pabilioi modulagarriak eraiki dituzte hiru kirol edo auzokide talde ezberdinek batera erabiltzeko, oso beharrezkoa deritzogun gizarte iraunkortasun handiagoa gehituz.

Honetaz gain, Bilboko Udalaren 2011rako aurrekontuak *San Mames berria* erakundearen sartzearen eragina jasaten darrai. Gogora dezagun, horren truke Udalak tasen bidez bilduko zituen 13 milioi eurori uko egin ziola.

3.- Ondorioa

Hauek guztiak, eta aipatu ahalko genituzkeen askoz gehiago, 2011rako aurrekontu proiektu honi ezetza emateko arrazoiak dira. Udal gobernu honen kudeaketari ezetz esateko eta udaletxean dagoen oposizioaren erantzun alternatibo ezari ere ezetz esateko.

Bestelako Bilbo artikulatzeari guztiz beharrezkoa deritzogu. Hasteko, Bilbo erakusleihu bihurtu nahi duen proposamen berri honi erantzuna emanaz.